

## Madriko ordezkariarekin bilduko da Nafarroako HB

A.U. / IRUÑEA

Nafarroako Herri Batasunako parlamentariak elkarriketa eskatu zioten atzo Garcia Villoslada, Madriko Gobernuak Iruñean duen ordezkariari. Ordezkarria ez zegoen uhe horretan, baina bere idazkariak ez zuten eragozpenik jarri elkarriketa hori datorren egunotan egiteko.

Maurizio Ollite, Itziar Gomez eta Zutoia Mitxel foru parlamentariak eguerdiko hamabiak aldera hurbildu ziren Iruñeko Gobernu Zibileran. Parlamentariak gutun bat zeramaten Garcia Villosladarentzat. Bitartean, HBko beste zenbait hautetsi Gobernu Zibilaren parean gelditu ziren, Merinaldeetako plazan, 'Alde hemendik' zioen pankartarekin.

Parlamentariak ezin izan zioten eskura eman gutuna, esan bezala Garcia Villoslada momentu horretan kanpoan zegoelako. Ordezkaritzan utzitako idatzian Espainiako Segurtasun Indarren jokatubidea gogor kritikatu zuen

Herri Batasunak eta «alde hemendik» eskaera gauzatzeko garaia heldu dela zioen.

«'Demokrazia' gure herrian ezarri zigutenetik urte asko igaro badira ere —HBren idatziaren arabera—, badirudi urteak ez direla igarotzen Estatuko indar zaldatzaileentzat, jokabide eta helburu berberak erakusten bait dituzte behin eta berriz».

HBk joan zen asteburuan Iruñeko alde zaharrean gertatu ziren istilu larriak ekarri zituen gogora. HBk dioenez, poliziek biktimize egotzi nahi izan dizkiete beren erruak, «Poliziaren irudia garbitu nahian». Gizarteak Poliziaren babesik ez duela behar esanez eta Segurtasun Indarrek hemendik alde egin dezatela eskatuz amaitu zuen HBk.

Bestalde, Mikel Iribarren gazteak larri segitzen du. Mugimenduren bat egiten du, baina gorputzaren ezker alde erdi paralizatu du oraindik. Begi bat salbatuko duen ez dakite oraindik eta mutu geldi daiteke.

## Bartzelonako bigarren etakidea identifikatu duela dio Poliziak

MADRIL

Jose Luis Urrusolo Sistiaga, 'Joseba' da, Espainiako Barne Ministeritzako iturrien adierazi duenez, joan den hilaren 13ean Bartzelonan bi polizia hil zituen ETako komandoko bigarren partaidea.

Poliziaren esanetan, Juan Jesus Narbaez Goñi, 'Pajas' eta Urrusolok osatzen dute ETako 'komando ibiltaria', azken boladan Espainiak zehar hainbat atentatu egin dituenak.

Urrusolo Sistiaga ETako 'historikoetako' bat da, eta ustez 'Madril' komandoko partaidea zela Emiliano Revilla industrialaren bahitzen parte hartu zuen.

Barne Ministeritzako iturri hauen

esanetan, identifikazioa 'bide ezberdinei esker' egin ahal izan da, baina ez zuten nahi izan gehiago zehazterik.

Efe ajentziak aipatzen dituen ETaren aurkako borrokako beste iturri batzuek, ETak historikoak erabiltzeak esan nahi du ez daukala jende gazte nahikorik halako atentatuak egiteko gauza direnik.

Iturri hauen esanetan, 'komando ibiltariak' Iparraldeko bizilagunak osatutako 'Argala' komandoa ordezkatu du. Poliziaren esanetan, Urrusolo Sistiaga 'Madril' komandoan egon zen, besteak beste Ignazio Arakama, Belen Gonzalez, Jose Tapia eta Jose Angel Urriagarekin batera.

# Arzalluz da EAJko lehendakari izateko hautagai bakarra

Atzo onartu ziren Artean urtarrilean eztabaidatuko diren hiru txostenak

**Joan zen azaroan berak adierazitakoa baietsita, Xabier Arzalluz da EAJko lehendakari izateko hautagai bakarra, Herri Asanbladen erabakien berri jaso ondoren joan zen astean zehar Hegoaldeko lau herrialdeetako eskualde batzarretan ikusi ahal izan denez.**

BILBO

Gauzak horrela, Euzkadi Buru Batzarreko gaur egungo lehendakariarena izango da datorren urtarrilaren 11n eta 12an Bilbon izango den Asanblada Nagusian bozkatuko den zerrenda bakarra, atzo igorritako ohar baten bidez EAJk jakitera eman zuenez. Lehenago ere, azaroaren 30ean Artean izandako Batzar Nazionalan baietsi zuen bera zela EBBko lehendakari izateko hautagai bakarra, eta besterik ez «ardura hori hartu beharko dugu», esan zuen.

EBBko lehendakaria hautatzeko prozesua joan zen uztailaren 8an deitu zen. Lehenengo erronda, hautagaiak aurkezteko, urriaren 28a eta azaroaren 10a bitartean eman zen, udal batzarretan.

Udal batzarren erabakiak jaso ondoren, alderdi jeltzaleko Berma eta Kontrol Batzorde Nazionalak hautagaien zerrenda zabaldu zuen, Xabier Arzalluz izen bakarrarekin.

Abenduaren 2a eta 16a bitartean



EAJk urtarrilean egingo du bere Asanblada Nazionala.

ALEX

udal taldeetan bigarren erronda bat egin zen eta atzo Xabier Arzalluz izendatu zuten hautagai ofizial, hautaketa bera urtarrileko Asanblada Nagusian gauzatu bada ere.

Asanblada Nagusiaren ostean, otsailaren 8an hain zuzen, amaitutzat emango da Euzkadi Buru Batzarreko gainontzeko zortzi kideen hautaketa, eta baita Kontrol eta Berma Batzordeko partaidea eta Justizi Epaitegi Nazionala.

Jeltzaleen herrialdeetako exekutibak berritzeko prozesua otsailaren 12an hasi eta lau herrialdeetako batzarretan amaituko da, martxoaren 28an.

Era berean, joan zen astean bildu diren herrialdeetako batzarrek amaitutzat eman zuten Asanblada Nazio-

nalean izango diren txostenen buruzko eztabaida. Txostenok EAJk datorren urteetarako eginbide politikoa zehaztuko dute.

Hiru txosten aurkeztu zaizkie bazkide jeltzalei: Jon Azuak koordinatutako '2.000 urteko Euzkadirentzako zerumuga berriak' deitutakoa eta arlo sozioekonomikoan jeltzaleen iharduna zehazten duena; Juan Ramon Gebarak koordinatutako 'Alderdiaren azken lau urteetako ihardunaren balantze politikoa', 1988an Arriagan izan zen Asanblada Nagusitik honako iharduna aztertzen duena eta Juan Maria Ollorak zuzendutako 'EAJrentzako horizonte berriak' deitutakoa, datozten lau urteotan jeltzaleek hartuko duten norabide politikoa bideratzen duena.

## Plentziako EAJk baliogabetzat jo du Gorordoren aurkako auzia

BILBO

Plentziako EAJko Batzarrek «baliogabetzat» jo zuen atzo Jose Maria Gorordo Bilboko alkate ohiaren aurka eman den auzia, hau da, alderdi jeltzaleetik lau urterako kanporatua izatea, Gorordok berak jakitera eman zuenez.

EAJko Bizkai Buru Batzarrek zenbait bazkideren salaketa hartuta espediente ireki zion Gorordori, alderditik kanpo zegoen kandidatura independentea bultzatzen ahalegintzeagatik eta Josu Ortuondo hau-

tagai jeltzalearen kanpainen laguntzarik ez emateagatik.

Atzo Gorordok esan zuenez, Plentziako Batzarra erabat ezados agertu zen bere aurkako prozedurarekin «batzarrek epaile arbuia duela eta nire aldetik ere arbuizteko prozesua martxan ipini delako».

Bilboko alkate ohiaren esanetan, Batzarrek jarrera horren bidez prozedura berriro hastea nahi du, Plentziako epaile jeltzaleak kasuaz ez arduratzeko erabakia berriro harturik eta azken batean batzarrek berak epaimahaia izendatu ahal izateko.



Jose Maria Gorordo.

## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GORPUTZ HEZKUNTZA ARLOAN ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA, OINARRIZKO PRESTAKUNTZA - IKASTAROA GAINDITUA DAUKATEN OHOKO IRAKASLEEI ZUZENDUA.

Bizkaian lan egin eta Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan bizi diren irakasleei dei egiten zaie.

92 01-08tik 92-04-03ra bitartean Hernaniko Polikiroldegian izango den ikastaroan parte hartzeko aukera ematen zaie. (1991ko otsailaren 21eko EHAAn)

Hala nahi dutenek, Gipuzkoako Ordezkaritzan aurkeztu edo bertara telefonoz deitu beharko dute Abenduaren 23tik 27ra bitartean. (Tfnoa.: 943 - 423988).

OHARRA: Datorren urtean Bizkaian ari diren irakasleei zuzendutako beste espezializazio ikastaro batetarako deia egingo da.

# APIKA

INFORMATIKA

APIKA rekin, zure entpresaren informatizatzeak ez zaitu beldurtu behar.

**Ez dago sekreturik:** Adimena egunero lantzen dugu.

DONOSTIA

Ametzagaña 19, behe. Tel.:  
(943) 274711 - 283399  
FAXA (943) 274600

BILBO

Begoñalde 9-1. Tel.:  
(94) 4467684  
FAXA: (94) 446 76 85

## ADIZU: APIKA GESTIOGINTZAN MAISU